

OINARRI ARAUTZAILEAK
BBF Fintech
INKUBAGAILUAN SARTZEKO

1. Helburua

Oinarri hauen helburua, Bilboko Uribitarte 6an kokatuta dagoen BBF Fintech inkubagailura sartzeko arauak finkatzea da. Inkubagailu espezializatu honen eginkizuna, Bizkaian dauden Startupak eta Fintech zein Insurtech enpresei garatzen laguntzea da, hauen garapenerako ingurune lagungarria sortuz.

Hori dela eta, enpresa azelerazio gune eta zerbitzu hauek, startupei eskaini egiten zaizkie, euren proiektuak kokapen eta ingurune egoki eta lagungarri batean garatu dezaten, merkatura irteteko heldutasun maila lortu arte, hau da, ingurune lehiakor batean irauteko trebetasun eta ezagutza nahikoak eduki arte.

Bestalde, kolaborazio lerro bat irekitzen da BBF Fintech esparruan, finantza merkatuetan interesak dituzten enpresa kontsolidatuekin, hauen hazkundea sustatzeko. Horretarako, erronkak jarriko dira open innovation formatuan, eta bertan parte hartuko dute, startupak eta azeleratzailean dauden gainontzeko taldeak. Era berean, enpresa honen kolaborazioa eta laguntza lortu nahi da, startupen hasierako faseetarako.

Helburu honekin ere, beste entitate eta erakunde batzuen interakzioa bilatuko da, zentroan dauden proiektuen garapenean eta azelerazioan kolaboratzeko edota azeleratzailearen funtzioa betetzen laguntzeko.

2. Onuradunak eta inkubagailuan sartzeko baldintzak

2.1. Entitateak edota erabiltzaileak:

- I. Enpresa berria sortzeko BBF Fintech jokaera sektoreko proiektu berritzailea aurkezten duten **ekintzaileak**.
- II. Fintech edota Insurtech aplikaziotara zuzendutako konponbide teknologikoko hasierako garapena duten **Startupak**. Honetaz gain, merkatuaren aukera kontrastatzeko beharra izan beharko dute, eta euren negozio eredia hedatzeko edo bizkortzeko fasean aurkituko dira.

2.2. Enpresa kolaboratzaileak:

- I. *Open innovation* dinamiken bitartez euren berrikuntza plana garatu nahi duten **Finantza edo Aseguru sektorearen enpresa kontsolidatuak**.

Iniziatiba guzti hauek, produktu eta zerbitzu berritzaileak eskaini beharko dituzte, merkatu globalera zuzenduta egongo dira eta BBF Fintech jokaera esparruko espezialitate barruan egon beharko dira.

2.3 Inkubagailuan sartzeko baldintzak:

I. Ekintzaileak:

1. Negozio plan aurreratua duen Fintech edota Insurtech aplikazioekin erlazionatutako proiektu berritzailea aurkeztu. BBF Fintech inkubagailuko pertsonalak erabakiko du proiektu honen bideragarritasunaren inguruan.
2. Zerga izaera exigentziak ordainduta izan dagokien Administrazio Publiko ezberdinetan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuta izan.

II. Startupak:

1. Hazkunde gaitasuna eta merkatu globaletan sartzeko ahalmena erakusten duen proiektu berritzailea izan eta aurkeztu.
2. Sozietateak eratuta eta erregistratuta egon beharko dira .
3. JEGZ an altan egon eta zerga egoitza Bizkaian eduki.
4. Zerga izaera exigentziak ordainduta izan dagokien Administrazio Publiko ezberdinetan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuta izan.

III. Enpresa kontsolidatuak:

1. Open innovation bidezko dinamiken erabileraren bitartez definituko diren konponbide berrien garapen lerroak eduki eta aurkeztu.
2. Sozietateak eratuta eta erregistratuta egon beharko dira .
3. JEGZ an altan egon eta zerga egoitza Bizkaian eduki.
4. Zerga izaera exigentziak ordainduta izan dagokien Administrazio Publiko ezberdinetan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuta izan.

3. Onurak

3.1. Instalazioak

- ✓ Lan gune baten edo batzuen okupazioa alokairu erregimenean BBF Fintech inkubagailuan.
- ✓ Lehentasunezko sarbidea, bilera, erakusketa, foru eta dinamizazio beste ekintza batzuen guneetan.

3.2. Zerbitzuak

Postu bakoitzeko hileroko kuotan zerbitzu hauek daude barne :

- ✓ Proiektuaren tutorizazioa. Hemen sartu ahal izango dira, enpresen sorrerarako eta hobekuntza lehiakorrerako dauden programa eta zerbitzu ezberdinetan sartzeko laguntza. Programa hauek, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, SPRIk eta Beazek, BBF Fintech-eko pertsona eta entitate erabiltzaileen eskura jartzen dituzte.
- ✓ Lan gune baten alokairu erregimenean sartzeko diren hornidurak :
 - Argia, ura eta garbitasuna;
 - Telefonoa;
 - Inprimagailua /Fotokopiadora;
 - Wifi;
 - Sarbidea 24 ordutan;
- ✓ Zentroan dohainik antolatzen diren azeleratze eta dinamizatzeko jardueretan parte hartzeko lehentasunezko sarbidea, eta deskontu garrantzitsuak doakoak ez diren ekintzetan.
- ✓ Akonpainamendu prozesu baterako eskubidea, inkubagailuaren parte zaren bitartean (merkatua, taldea, proiektua, inbertsioa, eta abar). Laguntza zerbitzu hauen barruan hurrengoak sartzen da:
 - Jarraipen bilerak adituekin;
 - Advisors-en aholkularitza
 - Pitch-a inbertitzaileen aurrean;
- ✓ Enpresek euren egoitza soziala BBF Fintech-en kokatu ahal izango dute, honen parte diren bitartean.

Postu bakoitzeko hileroko kuotaren barnean sartzen ez diren zerbitzu gehigarriak:

- ✓ Gehigarri gisa, ekintzaile eta startupek, BBF Fintech-ek tarifyan sartzen ez diren neurrirako programak diseinatzeko aukera izango dute.

3.3. Egonaldiaren iraupena

BBF Fintech-en egon daitekeen iraupenik luzeena:

- I. **Pertsona ekintzaileak eta startupak:** Inkubazio aldi standarrak urtebete iraungo du. Urte honi beste urtebete gehigarria jarrai diezaioke, Inkubagailuko koordinazio Batzordeak oniritzia izanez gero. Honek, kasu bakoitzerako ezarrita dauden KPI-ak eta hauen betekizun maila aztertuko ditu, eta honen arabera erabakiko du egonaldiaren luzapena.

Egonaldi honetan, zentroan dauden proiektu guztien hiruhileko ebaluazio bat egingo da. BBF Fintech-en Koordinazio Batzordeak, honen bidez, proiektuak baloratuko ditu eta erabakiko du hauen jarraipenaren inguruan.

Beraz, hiruhileko balorazioa egokia izango ez balitz, alokairua kontratuaren amaiera ekar lezake.

Salbuespen moduan eta aurretik Koordinazio Batzordeak eskatuta eta Fintech BBF Zuzendaritza Batzordeak onartu ondoren, posible izango litzateke egonaldiaren baldintza espezifikoak aldatzea.

4. BBF Fintech-era sartzeko prozedura

4.1. Eskaera

Zentroko gune eta zerbitzuetara sartzeko prozesura deialdi irekian burutuko da, Oinarri hauen iraukortasunen epearen zehar.

Interesatuta dauden pertsonak edota entitateek bere eskaera BBF Fintech-en egin beharko dute, BBF Fintech-eko webgunean dagoen formularioaren bidez: <http://bbfaktoria.com/eu/bbffintech/>

Inkubagailuko Koordinazio Batzordeak, informazio osagarria eskatu ahalko du eta elkarriketa eska dezake ere, proiektua hobeto ulertzeko.

4.2. Hautaketa irizpideak

Zentroan sartzeko, **balorazio egokia izan beharko da hurrengo irizpide guztietan:**

- ✓ Eskaintzen diren produktu eta zerbitzuen izaera berritzailea.
- ✓ Enpresa proiektuaren egungo definizio gradua.
- ✓ Produktu eta zerbitzuak zuzentzen diren merkatu globalaren ahalmena.
- ✓ Proiektuek jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko daukaten ahalmena.
- ✓ Talde sustatzailearen sendotasuna eta ahalmena.
- ✓ BBF Fintech-en ezarrita dauden entitateekin kolaborazioak sortzeko ahalmena.

4.3. Eskaeren balorazioa

Eskaerak, BBF Fintech-eko Koordinazio Batzordeak osatzen duten pertsonak ebaluatuko dituzte. Koordinazio Batzordeak onarpen positiboko proposamena burutuko du, batzordea osatzen duten kide gehienak ados baldin badaude.

Erabakia, pertsona edota entitate interesatuei jakinaraziko zaie, eta kasuan kasuko, dagokien alokairu kontratua sinatzeko epea adieraziko zaie.

Eskaerak ebazteko, sarrera ordena jarraituko da, eta baldintzatuta egon dira eskuragarri dauden plazetara.

Batzorde Koordinazio honek, adituen aholkularitza eskatu ahal izango du, aurkeztutako proiektuak horrela eskatzen duenean.

5. Dokumentazioa

Pertsona ekintzaile edota startup guztiek aurkeztu behar duten dokumentazioa eskaera onarpenaren azterketarako honako hau da :

1. Sarbide eskaera
2. Negozio Plana
3. Talde sustatzailearen Curriculum Vitae-a.

***Oharra:**

- ✓ Oinarri hauen onarpen datatik aurrera, eskaera inprimakia eskatzaileen eskura aurkitzen da, hurrengo webgunean: <http://bbfaktoria.com/wp-content/uploads/BBF-Fintech-INKUBAGAILUAN-SARTZEKO-ESKAERA.docx>
- ✓ Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira webgunearen bidez. Hauek, termino guztiak era egokian beteta izan beharko dute eta apartatu honetan aipatutako dokumentazioarekin lagunduta egon beharko dira.
- ✓ Eskaeraren aurkezpena interesatuen aldetik, Oinarri hauen edukiaren onarpena ekarriko du.
- ✓ Proiektuek baldintzak bete beharko dituzte, eta enpresei eskatutako nahitaezko dokumentazioa entregatuta izan beharko dute, eskatutako gunera sartu aurretik.
- ✓ Eskaerak jaso ondoren, hauek ez badaude beteta termino guztietan edo eskatutako dokumentazio guztia egongo ez balitz, interesatuei 10 egun baliodun emango zaizkie akatsak zuzentzeko edota falta diren dokumentuak entregatzeko. Horrela egingo ez balute, euren eskaera baztertu egingo litzateke, eta espedientea artxibatuta geratuko litzateke besterik gabe. Kasu hauetan, BBF Fintech-ek ez dauka eskaera hauen gaineko ebazpen espresorik emateko betebeharririk.
- ✓ Kasu guztietan eskatzaileei eskatu ahal zaie, aurkeztutako eskaera era egokian ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkoa ikusten den dokumentazioa edota informazioa.

6. Alokairu kontratua

Behin proiektua aukeratuta eta gunea okupatu aurretik, eta beharrezko dokumentazioa entregatu ondoren (Erantzukizun Zibileko Aseguruaren kontratazioa barne), Mondragon Unibertsitateak, BBF Fintech-eko Zuzendaritza Batzordeak onartutako alokairu kontratu eredua izenpetuko du onuradun bakoitzarekin. Kontratu honetan, gune hau erabiltzeko baldintza orokorrak zein partikularrak agertuko dira.

7. Egonaldiaren erregimena

7.1. Erabiltzaile guztiek bete beharreko BBF Fintech inkubagailuaren enpresa espazioen erabilerari buruzko arauak:

1. Espazioa erabiltzeko eskubidea pertsonala eta transferitu ezina da, eta beraz, ezin da alokatu edo utzi ez osorik ez zatika, ez dohainik eta ezta ustekabeen ere.
2. Alokairu kontratua sinatzeko hilabeteko epea egongo da gehienez, espazioaren uztearen jakinarazpena jasotzen denetik.
3. Gehienez hilabeteko epea egongo da utzitako espazioa jardueretan erabiltzeko, alokairu kontratua sinatzen den datatik.
4. Espazioa modu erabilgarrian mantendu beharko da.
5. Espazioaren erabilera amaitu egiten bada, entregatu zen baldintza berdinetan utzi beharko da.
6. Behin egonaldia amaituta dagokion espazioan, onuradunak bere pertenez guztiak erretiratu beharko ditu eta espazioa aurkitu zuen baldintza berdinetan itzuli beharko du. Ez badu horrela egiten, BBF Fintech-eko Koordinazio Batzordeak pertenez hauek baztertu ahal izango ditu eta egonaldia bukatzen denetik hiru hilabete pasatzen direnean, pertenez hauek suntsitu edo hirugarren batzuei eman diezaike.

7.2. Elementu komunak

Elementu komunak deitzen diegu bere naturagatik pertsona edo entitate erabiltzaile guztiek erabil ditzaketen elementuei edo erabilera orokorra daukaten elementuei.

Espazioa alokairuan hartzen duten pertsonak edota entitateek, espazio komunak erabil ditzakete, hauen erabilera oztopatzen ez duten bitartean, beste batzuek erabili nahi dutenean. Honetarako, BBF Fintech-ek ezarritako arauak jarraitu beharko dira eta bera izango da gatazkak egonez gero azken hitza izango duena.

7.3. BBF Fintech erabiltzen duten pertsonak edota entitateek ordaindu beharreko kuotak.

Espazioa alokairuan hartzen duen pertsona edota entitate bakoitzak, esleitu zaion espazioaren alokairuaren kuota ordaindu beharko du. Zenbatekoak (BEZa ez dago barne), dokumentu honen I eranskinean zehazten

dira:

Kuota honen fakturazio modua, dagokion alokairu kontratuan zehaztuko da.

8. Betebehar orokorrak

8.1. Pertsonen edota entitate onuradunen betebeharrak

1. Programa honen helburuari dagokion bere funtzioekin lotutako informazioa eman, eskatu egiten zaionean.
2. BBF Fintech-ekin hitzartutako baldintzetan edozein aldaketa egongo balitz informatu puntualki.
3. Instalazioen, elementu komunen eta izaera indibidualeko zerbitu minimoen erabilera egokia egin.
4. Eta orokorrean, Oinarri hauetan azaltzen diren guztiak, eta alokairu kontratuan adierazten diren betebeharrak ere bai.

I eranskina

Espazioa alokairuan hartzen duten pertsonak edota entitateek ordaindu beharreko kuotak

Hilero ordaindu beharreko kuotak, (BEZa ez dago barne), hauek izango dira:

- **Pertsona ekintzaileen edota startupen kasuetarako:**
 - Alokairuaren kostua, okupatzen diren postuen arabera izango da.
 - Lanpostu bakoitzaren kostua, BBF Fintech-ean **90 eurokoa izango da pertsona eta hilabete bakoitzeko.**
 - Zentroan postu bat okupatzea eskatzen duen Startup/ enpresa bakoitzaren beharren arabera, zerbitzu espezifikoak baloratuko dira eta prezio bat ezarriko da. Prezio hau Batzordeari pasatu beharko zaio bere onarpenerako.
 - Urtea gaintzen duten egonaldien kasuetan (luzapena, Koordinazio Batzordeak onartzen duenean), kostu hau berrikusi egingo da, indarrean dagoen KPI a kontuan harturik.
 - Iniziatiba batek ezin izango ditu okupatu **5** postu baino gehiago, BBF Fintech esparruan.